

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2020 000000966

Espediente-zenbakia: 2020/KON_TXI_0127**Xedea****Nitrilo eskularruen hornidura kontratua esleitzea onartzea.****Aurrekariak**

Lehenengoa: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauden egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua emon eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak beregatzeko.

Bigarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zan.

Hirugarrena: 2020ko martxoaren 24ko 816 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, COVID-19ak sortutako osasun egoera kudeatzeko, Lehendakariaren martxoaren 13ko 6/2020 Dekretuaren eta Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz, emergentzia egoera aldarrikatzea erabagi zan, onartutako Alarma Egoerak iraun bitarteko eraginagaz.

Laugarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisiari aurre egiteko, beharrezkoa da, emergentziaz, nitrilo eskularruen hornidura kontratatzea.

Argudioak

Lehenengoa: 2020ko martxoaren 24ko 816 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez aldarrikatutako Emergentzia egoerak, besteak beste, kontratazinoan dauka eragina, beti be COVID-19ak sortutako egoeragaz lotura zuzena daukeen kasuetan.

Eta esleipen honegaz, COVID-19ak sortutako egoerari aurre egiteko, behar-beharrezkoa diran nitrilo eskularruen hornidura kontratatu gura da.

Bigarrena: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 120. artikulua arabera, emergentzia egoera beharrezkoak diran kontratazinoak egin ahal izateko, ez da beharrezkoa kontratazino espedienteaz izapidetzea, ezta kreditu nahikoa izatea.

Eta kontratuaren exekuzinoa hasteko epea, ezingo dau izan hilabete baino handiagoa.

1



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E4000406B500W3S7S8T3U8W4

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 14/04/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/04/2020
18:28:20

EXPEDIENTE ::
2020KON_TXI_0127
Data: 31/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Hirugarrena: Esleipena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erakundeen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.m artikulua eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, kontratua esleitzeko ahalmena alkateari jagoko.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta honako hau erabagi dot

LEHENENGOA: Nitrilo eskularrien hornidura kontratua, emergentziaz, B95747721 IFZ zenbakidun Suministros Martinez 2013 SL (SUMIMAR) enpreari esleitzea, 129,34 eurotan BEZaz kanpo, (BEZari jagokonez zenbatekoa: 27,16€ DANATARA: 156,50€), 2020 urterako eta esleipendunak aurkeztutako proposamenagaz bat.

BIGARRENA: 156,50 eurotako gastua lotzea Aurrekontuko 00600-92920-2210900 partidan, 2020 urterako.

HIRUGARRENA: Esleipendunari kontratua berehala exekutatzeko agindua emotea eta, ohartarazotea, kontratuaren exekuzioa erabagi honen jakinarazpena jaso eta gehienezko hilabeteko epean hasiko ez baleu, esleipena bertan behera geratuko dala.

LAUGARRENA: Esleipendunari, lehiatzaileari, kontu hartzaileari eta diruzainari erabagia jakinarazotea eta kontratugilearen profilean argitaratzea.

BOSGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

Alarma egoera dela eta, erabaki honek eragina izango du apirilaren 1eko 2020/907 Alkatetza Dekretuaren arabera eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 3. Xedapen Gehigarriaren arabera.

Debido al estado de alarma, esta resolución tiene los efectos contemplados en el Decreto de Alcaldía 2020/907 de 1 de abril y en la Disposición Adicional 3ª del Real Decreto 463/2020 de 14 de marzo.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Sinadurea eta data

